Además de la reunión ordinaria a que se refiere el artículo anterior, la Junta General podrá reunirse en sesión extraordinaria.

Las Juntas Generales de carácter extraordinario se convocarán:

1.– A instancias de la Junta de Gobierno del Colegio.

2.– Mediante petición escrita de al menos un veinte por ciento de los colegiados o el diez por ciento de los ejercientes y haciendo constar en el escrito, que se dirigirá a la Junta de Gobierno, las causas que motivan dicha solicitud y los asuntos concretos u orden del día a debatir.

En este supuesto la Junta de Gobierno deberá convocar dicha Junta General extraordinaria en el plazo máximo de 20 días computado desde el día siguiente al de la presentación de dicha solicitud y con el orden del día indicado por los solicitantes.

***19. artikulua.***– Deialdiak.

Gobernu Batzordeak egingo ditu Batzar Orokorretarako deialdiak, Ohiko nahiz Ezohiko Batzar Orokorrak izan. Deialdian adierazi beharko du non, noiz eta zer ordutan izango den bilera, lehenengo deialdian nahiz bigarrenean, eta bertan adierazi beharko du, halaber, eztabaidatu beharreko gaien zerrenda. Bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez egin beharko du deialdia, Euskadiko Logopeden Elkargo Ofizialaren ohiko hedapen-bideak erabilita. Era berean, elkargoaren egoitza ofizialeko iragarki taulan jarri beharko du, ikusgai.

Batzar Orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak izan, baliozkoak izango dira elkargokideen erdiak gehi bat biltzen badira, lehenengo deialdian; edo biltzen diren elkargokideak biltzen direla ere, bigarrenean. Bigarren deialdi hori lehenengo deialdia baino hogeita hamar minutu geroago izango da. Erabaki guztiak parte-hartzaileen gehiengoaren aldeko botoarekin hartuko dira.

Elkargoko lehendakaria eta idazkaria izango dira, hain zuzen, Batzar Orokorretako lehendakari eta idazkari ere.

Batzar Orokorretako lehendakariak hasi eta amaituko du saioa; berak egingo ditu moderatzaile lanak ere. Behar izanez gero, zeinahi elkargokideren esku utzi dezake funtzio hori.

Erabaki beharreko auzien bozketak eskua altxatuta egingo dira, elkargokideen % 20k edo lehendakariak berak isilpeko bozketa egiteko eskatzen dutenean izan ezik. Nolanahi ere, zuzenean elkargokideei eragiten dieten auzietako bozketak isilpekoak izango dira.

Batzar Orokorretan ezingo da eguneko gai-zerrendan agertzen ez diren auziei buruzko erabakirik hartu.

***20. artikulua.***– Gobernu Batzordea.

Gobernu Batzordea da elkargoko organo betearazlea eta elkargoa bera ordezkatzen duena. Batzar Orokorretan hartutako erabakiak egikaritzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da; Batzorde hau arduratzen da, halaber, elkargoaren administrazioaz.

Osoko Bilkura batek eta Batzorde Iraunkor batek eratzen dute Gobernu Batzordea.

Osoko Bilkura, berriz, honako hauek osatzen dute: lehendakariak, lehendakariordeak, diruzainak, idazkariak eta hiru batzordekidek.

Lehendakaria eta idazkaria elkargoko lehendakaria eta idazkaria izango dira.

Elkargoko Batzorde Iraunkorra, berriz, honako hauek osatzen dute: lehendakariak, lehendakariordeak, idazkariak eta diruzainak.

Lehendakaria kanpoan edo gaixo badago, lehendakariordea jarriko da bere tokian. Lehendakariordea,

***Artículo 19.***– Convocatorias.

Las Juntas Generales, ordinarias o extraordinarias, serán convocadas por la Junta de Gobierno, con indicación del lugar, fecha y hora de la reunión, en primera y segunda convocatoria, y el orden de los asuntos a tratar, con diez días de antelación como mínimo, mediante los medios habituales de difusión del Colegio de Logopedas de Euskadi y su exposición en el tablón de anuncios en la sede oficial del Colegio.

Las Juntas Generales, ordinarias o extraordinarias, quedarán válidamente constituidas con la asistencia de la mitad más uno de los colegiados en primera convocatoria y cualquiera que fuere el número de asistentes en segunda convocatoria, que tendrá lugar treinta minutos después de la hora en que se hubiese convocado la primera. Los acuerdos se adoptarán por mayoría de los asistentes.

Serán Presidente y Secretario de las Juntas Generales quienes lo sean del Colegio.

El Presidente de las Juntas Generales abrirá y cerrará la sesión haciendo de moderador y podrá delegar esta función en cualquier colegiado.

Las votaciones de los asuntos a tratar se realizarán a mano alzada, salvo cuando el 20 por 100 de los Colegiados o el Presidente soliciten que se adopten por votación secreta. En cualquier caso será secreto el voto cuando afecte a cuestiones que afecten personalmente a los colegiados.

No podrán tomarse acuerdos en las mencionadas Juntas Generales sobre asuntos que no figuren en el orden del día.

***Artículo 20.***– Junta de Gobierno.

La Junta de Gobierno del Colegio es el órgano ejecutivo y representativo del mismo, encargada de la ejecución y gestión de los acuerdos de las Juntas Generales y de la administración del Colegio.

La Junta de gobierno estará constituida por un Pleno y una Comisión Permanente.

El Pleno estará integrado por los siguientes miembros: Presidente, Vicepresidente, Tesorero, Secretario y tres Vocales.

El Presidente y el Secretario lo serán también del Colegio.

La Comisión Permanente del Colegio estará constituida por el Presidente, el Vicepresidente, el Secretario y el Tesorero.

En caso de ausencia o enfermedad del Presidente, será sustituido por el Vicepresidente. El Vicepresidente,

idazkaria eta diruzaina, ordea, batzordekideek ordezkatuko dituzte, dagokien hurrenkeraren arabera.

***21. artikulua.***– Funtzioak.

Honako hauek dira Gobernu Batzordearen funtzioak:

Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatzea.

Elkargoa zuzentzea, kudeatzea eta administratzea, elkargokideen mesedetan.

Elkargoaren interesen ohiko kudeaketa egitea.

Elkargoaren funtzioak hobeto betetzeko premiazkoak diren zerbitzuak finkatzea eta antolatzea.

Elkargokideak onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartzea.

Diziplina ahalmenak erabiltzea, eta, estatutu hauek diziplina erregimenari buruz diotenarekin bat, dagozkion zehapenak ezartzea.

Justizia Auzitegien eta Herri Administrazioaren aurrean elkargoa ordezkatzea.

Urteko aurrekontuak osatzea eta horien aurreproiektua onartzea. Era berean, aurreko urteko balantzea egitea, Batzar Orokorretan aurkeztu eta onartzeko.

Hauteskundeetarako deialdiak egitea.

Elkargoaren helburuak betetzeko egoki irizten zaien barne-erregimenerako araudiak osatzea.

Deontologia Batzorde egoki bat eta komenigarritzat jotzen diren lan-batzordeak izendatzea.

Elkargoaren funtsak biltzea eta antolatzea, elkargoaren kuota eta zerga bidezko sistema finkatuz.

Elkargoaren ekintzen aurka jarritako errekurtsoak ebaztea, daukan eskumenaren arabera.

Oro har, legez edo estatutuetan Batzar Orokorrari esleitu ez zaizkion funtzio guztiak.

***22. artikulua.***– Deialdia.

Gobernu Batzordearen Ohiko Osoko Bilkura hilean behin egingo da; nolanahi ere, auziak garrantzitsuak badira, maizago ere egin ahal izango dira.

Idazkaritzak egingo du Osoko Bilkurarako deialdia, Lehendakaritzak hala eskatuta. Bilera baino gutxienez hiru egun lehenago egin beharko du, idatziz, eta eguneko gai-zerrenda erantsita bidali beharko da. Ezingo da gai-zerrendan agertzen ez diren gaiei buruzko erabakirik hartu. Erabaki guztiak, gainera, parte-hartzaileen gehiengoaren aldeko botoarekin hartuko dira, Osoko Bilkura osatzen duten kide gehienak lehenengo deialdian bilduta. Bigarren deialdian hartutako erabakiak,

Secretario y Tesorero serán sustituidos por los Vocales, según el orden de los mismos.

***Artículo 21.***– Funciones.

Serán funciones de la Junta de Gobierno:

Ejecutar los acuerdos adoptados por la Junta General.

Dirigir, gestionar y administrar el Colegio en beneficio de los colegiados.

La gestión ordinaria de los intereses del Colegio.

El establecimiento y organización de los servicios necesarios para el mejor cumplimiento de las funciones colegiales.

Acordar o denegar la admisión de colegiados.

Ejercer las facultades disciplinarias e imponer las sanciones que correspondan de acuerdo con lo previsto en los presentes Estatutos en cuanto a régimen disciplinar.

Representar al Colegio ante los Tribunales de Justicia y la Administración Pública.

Confeccionar los presupuestos anuales y aprobar el anteproyecto de los mismos, así como elaborar el balance del año anterior para su presentación y aprobación por la Junta General.

Convocar las elecciones.

Elaborar los Reglamentos de Régimen Interno que considere convenientes para el mejor cumplimiento de los fines del Colegio.

Nombrar la Comisión Deontológica que en su caso se cree, así como las comisiones de trabajo que considere convenientes.

Recaudar y administrar los fondos del Colegio estableciendo el sistema de recaudación de cuotas colegiales y contributivas.

Resolver, en el ámbito de su competencia, los recursos que se interpongan contra los actos del Colegio.

En general todas aquellas funciones que no están legal o estatutariamente reservadas a la Junta General.

***Artículo 22.***– Convocatoria.

El Pleno de la Junta de Gobierno se reunirá ordinariamente una vez al mes, sin perjuicio de poderlo hacer con mayor frecuencia cuando la importancia de los asuntos lo requiera.

La convocatoria para la reunión del Pleno se hará por la Secretaría, previo mandato de la Presidencia, con tres días de antelación como mínimo, mediante escrito, acompañándose el orden del día correspondiente. No se podrán adoptar acuerdos sobre asuntos que no figuren en el orden del día y los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos de los asistentes, debiendo reunirse en primera convocatoria la mayoría de los miembros que integren el Pleno. Los acuerdos adoptados en segunda

aldiz, baliagarriak izango dira, zeinahi izanik ere partehartzaileen kopurua. Lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

Era berean, Gobernu Batzordeko kideen ehuneko hogeik ere egin ahal izango dute deialdia.

***23. artikulua.***– Eskuordetzea.

Gobernu Batzordeak Batzorde Iraunkorrari eskuordetu diezazkioke, neurri batean, bere eskumenak; bereziki, funtzioak arinago bete ahal izateari begira.

***24. artikulua.***– Ordainsariak.

Gobernu Batzordeko karguetan jardutearen truke ordainsariak jaso ahal izango dira, baldin eta Gobernu Batzordeak hala proposatu, eta hala erabakitzen badu, hurrengo Batzar Orokorrak erabakia berretsiz gero, betiere. Era berean, urteko aurrekontuetan dagokien sailetan esleitutako ordainsariak edo ordezkaritza gastuak jasoko dituzte, beren jardunaren truke.

***25. artikulua.***– Bateraezintasunak.

Gobernu Batzordeko kide diren elkargokideek ezingo dute beren burua kontratatu Logopeden Elkargo Ofizialari zerbitzu profesionalak eskaintzeko; eta bereziki, ezingo dituzte eman elkargoak eskainitako trebakuntza ikastaroak, ez beren Kabinete edo Enpresako lankideen bitartez, eta ezta lankideek eurek ere.

***26. artikulua.***– Hauteskunde erregimena.

1.– Adinez nagusi diren elkargokide guztiak izan daitezke Gobernu Batzordeko kide; honako hauek izan ezik:

a) Kargu publikoetan jarduteko gaitasungabetze epai irmoa jaso duten elkargokideek.

b) Hutsegite larri edo oso larriagatik diziplina zehapena jaso duten elkargokideek, zehapena oraindik ere indarrean bada.

***27. artikulua.***– Batzordea hautatzeko prozedura.

Elkargokideen zuzeneko eta isilpeko bozketa bidez hautatuko dira Gobernu Batzordeko kideak. Elkargokide guztiek hauteskundeak egiten diren egoitzara joan beharko dute, botoa ematera; halere, posta ziurtatu bidez ere eman ahal izango da botoa.

***28. artikulua.***– Prozesuaren garapena.

1.– Hautagai-zerrendak elkargoan eratu behar dira; zerrenda horretan, hautaketa orokorrerako hautagai aurkezten diren elkargokide guztien izenek agertu behar dute, bakoitzari dagokion karguarekin batera.

2.– Hauteskundeetarako deialdia Gobernu Batzordeak egingo du, deialdian hauteskundeen eguna edo egunak adierazita; hauteskundeak ezingo dira egin hautagai-zerrendak ondoren aditzera emango den eran argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasi eta hogeita

convocatoria serán válidos sea cual fuere el número de asistentes. El Presidente tendrá voto de calidad.

Así mismo podrá ser convocada por el veinte por ciento de los miembros de la Junta de Gobierno.

***Artículo 23.***– Delegación.

La Junta de Gobierno podrá delegar parcialmente sus facultades en la Comisión Permanente para una mayor agilidad en el ejercicio de sus funciones.

***Artículo 24.***– Retribución.

Los cargos de la Junta de Gobierno podrán ser retribuidos en los casos que la Junta de Gobierno considere conveniente y a propuesta de la misma, previa ratificación por la siguiente Asamblea o Junta General. Percibirán asimismo las retribuciones o gastos de representación que, por su dedicación, les sean asignados o consignados en las partidas correspondientes de los presupuestos anuales.

***Artículo 25.***– Incompatibilidades.

Los Colegiados que sean miembros de la Junta de Gobierno no podrán incurrir en alguna forma en la figura de la autocontratación de sus servicios profesionales por el Colegio Profesional de Logopedas; y especialmente no podrán impartir, por o a través de colaboradores de su Gabinete o Empresa cursos de formación que ofrezca el Colegio.

***Artículo 26.***– Régimen Electoral.

1.– Podrán ser miembros de la Junta de Gobierno todos los colegiados mayores de edad no comprendidos en los siguientes supuestos:

a) Los colegiados que hayan sido condenados por sentencia firme que lleve aparejada la inhabilitación para cargos públicos.

b) Los colegiados a quienes se h aya impuesto sanción disciplinaria por falta grave y muy grave y no haya sido cancelada.

***Artículo 27.***– Procedimiento de elección de la Junta.

La elección de los miembros de la Junta de Gobierno será por votación directa y secreta de los colegiados, a cuyo efecto éstos acudirán personalmente a depositar su voto en la sede donde se celebre el proceso electoral, pudiendo también emitirse el voto por correo certificado.

***Artículo 28.***– Desarrollo del proceso.

1.– Las candidaturas deberán formarse en el Colegio, relacionando por cargos todos los colegiados que se presenten a candidatos para la elección general.

2.– La convocatoria de elecciones la efectuará la Junta de Gobierno, en ella deberá señalar la fecha o fechas de celebración de las mismas, en plazo que no podrá ser inferior a treinta días naturales, computados desde la fecha de publicación de las candidaturas presentadas,

hamar egun naturaletik beherako epean. Deialdian, hauteskunde egunaz edo egunez gainera, datu hauek ere adierazi behar dira: hauteskundeen hasiera eta amaiera orduak eta Batzorderako aukeratu beharreko karguen zerrenda zenbakitua.

3.– Hautagai-zerrendak aurkeztu aurretik, elkargokideen errolda osatu beharko da. Errolda elkargoaren egoitzan edo egoitzetan erakutsiko dute jendaurrean, elkargokideek nahi duten kontsultak egin ditzaten, hamar egun naturaleko epean; epe horren barruan, erroldan hautemandako akatsak zuzentzeko erreklamazioak egin ahal izango ditu beharrezko irizten dion orok. Akatsak zuzentzeko bost laneguneko epea izango da, gehienez ere; eta, ondoren, behin betiko errolda aurkeztuko da, lehen azaldutako modu berean.

Hautagai-zerrendak deialdia argitara eman eta zortzi egun naturaleko epearen barruan aurkeztu behar dira; epe hori igarotakoan, Gobernu Batzordeak hautagaien zerrenda eta hautagaiak bakoitza kargutarako aurkezten diren zehaztuko du, hurrengo hiru laneguneko epearen barruan.

Hautagai bakoitzari erroldaren ale bat banatuko zaio, eta horixe izango da hauteskundeetarako errolda baliozko bakarra.

4.– Hautagai-zerrenda orokor bakarra edo kargu bakoitzerako hautagai bakarra egonez gero, beste izapiderik gabe izendatuko dira hautagai horiek, artikulu honen 18. atalean ezarritakoari jarraituz.

5.– Hauteskundeetarako deialdian zehaztutako egunean eta orduan Hauteskunde Mahaia eratuko da, elkargoaren egoitzan edo xede horretarako aukeratutako aretoan (hauteskundeak elkargoaren egoitza ez den beste areto batean egitekotan, deialdian aditzera eman beharko da hauteskundeak non egingo diren ere). Elkargokide bat izango da Mahaiaren lehendakari, eta bi ikuskatzaile izango ditu laguntzaile: Hauteskunde Mahaia eratzeko unean aretoan dauden elkargokide zaharrena eta gazteena, hain zuzen ere (gazteenak idazkari-lanak beteko ditu).

6.– Hautagaiek, bestalde, ikuskatzaile bana izendatu ahal izango dute elkargokideen artean, hauteskundeetako jardueretan beren ordezkari jardun dezan. Ordezkariaren izena Gobernu Batzordeari jakinarazi beharko diote, hauteskunde eguna baino bost egun natural lehenago, gutxienez.

7.– Hauteskunde mahaian bi hautestontzi jarriko dira: bata, botoa ematera hauteskunde aretora joaten diren elkargokideen botoak biltzeko; eta posta bidez igorritako botoak biltzeko, bestea.

8.– Hautestontziek itxita egon behar dute; zirrikitu bat besterik ez dute edukiko, botoak sartzeko.

9.– Hautestontzietan argi eta garbi adieraziko da ontzi bakoitzari arestian aipatutako bi xede horietatik zein dagokion, kanpotik argi eta garbi ikus dadin zer-nolako botoak biltzeko den.

en la forma que a continuación se indica, así como la horas de apertura y cierre de la votación y la relación numerada de cargos de la Junta a cuya elección deba procederse.

3.– Antes de la presentación de candidaturas se procederá a la formación del censo colegial. Dicho censo quedará expuesto en la sede o sedes del Colegio para consulta de los colegiados durante el plazo de diez días naturales, durante el cual, quien lo estime necesario, podrá formular reclamación para la corrección de errores en que se pudiere haber incurrido. Una vez corregidos dichos errores en el plazo máximo de cinco días hábiles, será publicado, de la misma manera que el anterior, el censo definitivo.

Las candidaturas deberán presentarse dentro de los ocho días naturales siguientes a aquél en que se haga pública la convocatoria, y una vez transcurrido dicho plazo, la Junta de Gobierno deberá hacer pública la relación de candidatos presentados así como los cargos a los que optan, dentro del plazo de tres días hábiles siguientes.

A cada candidato se le entregará un ejemplar del censo definitivo, siendo este el único censo válido para la celebración de elecciones.

4.– Si solo hubiere una candidatura o un solo candidato por cada puesto a cubrir se hará sin más trámites el nombramiento de los mismos conforme a lo dispuesto en el apartado 18 de este artículo.

5.– En el día y hora señalados en la convocatoria se constituirá en la sede colegial o en las dependencias elegidas al efecto, que en tal caso habrán sido concretadas en la convocatoria, la Mesa electoral bajo la presidencia de un colegiado, auxiliado por dos interventores, que serán los colegiados de mayor y menor edad que en el momento de constituirse la Mesa se hallen presentes en la sala, de los que el segundo hará las veces de Secretario.

6.– Los candidatos podrán por su parte designar entre los colegiados un interventor que los represente en las operaciones de la elección, debiendo notificar el nombre del representante a la Junta de Gobierno con una antelación mínima de cinco días naturales anteriores a la fecha de celebración de la elección.

7.– En la Mesa electoral deberá haber dos urnas, destinadas: la primera, a los votos de los colegiados que acudan personalmente y la segunda a los que se emitan por correspondencia.

8.– Las urnas deberán estar cerradas, dejando únicamente una ranura para depositar los votos.

9.– El contenido antedicho de cada urna deberá estar especificado claramente en cada una, de manera que pueda ser identificable desde el exterior.

10.– Hauteskunde Mahaia eratutakoan, lehendakariak hauteskundeen hasiera iragarriko du, deialdian zehaztutako orduan; deialdian adierazitako orduan amaituko da hautaketa, eta mahaiaren lehendakariak jakinaraziko du hori ere, dagokion orduan, zenbaketa hasi aurretik.

11.– Botoa emateko txartel guztiak zuriak eta neurri berekoak izango dira, eta hautatu beharreko karguen zerrenda izango dute alde batean inprimatuta.

12.– Hauteskundeak egiten diren egoitzan, elkargokide guztiek botoa emateko nahiko boto txartel jarri beharko dira.

13.– Botoa emateko eskubidea gauzatzera hauteskunde aretora bertara joaten diren elkargokideek elkargokide direla egiaztatu beharko dute Hauteskunde Mahaian. Mahaiko kideek elkargokidea erroldan agertzen dela egiaztatuko dute, ozen esango dituzte boto emailearen izen-abizenak, eta botoa ematera doala adieraziko dute, elkargokideak txartel tolestua dagokion hautestontzian sartzeko unean.

14.– Posta bidez botoa emateko boto-txartelek aurrez zehaztutako ezaugarri berberak izango dituzte; ezingo dira sinatu, karguen zerrenda izango dute alde batean inprimatuta, eta kargu bakoitzerako hautatu nahi duten hautagaiaren izena adierazi beharko dute boto emaileek. Boto txartela tolestuta sartu behar da gutun-azal zuri batean; gutun-azal hori itxi, eta beste gutun-azal zuri batean sartuko da, gero. Bigarren gutun-azal horretan «Hauteskundeak» hitza idatzi behar da aurrealdean, eta boto emailearen izen-abizenak eta sinadura, atzealdean.

15.– Posta bidezko botoak elkargoko idazkariari helarazi behar zaizkio. Haren ardurapean egongo dira gutun-azalak, hauteskundeak hasi arte; hauteskundeak hasitakoan, posta bidez jasotako boto guztiak Hauteskunde Mahaiari emango dizkio idazkariak, eta Mahaiko kideek xede horretarako ontzian sartuko dituzte. Hauteskunde Mahaiak bozketa amaitu bitartean jasotako boto guztiak onartuko ditu, ontziak ireki eta zenbaketa hasi artean jasotako guztiak. Arestian adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten posta bidezko botoak baliogabetzat hartuko dira, betiere.

16.– Hauteskunde Mahaiak bozketaren amaiera iragartzen duenean, jendaurrean eta ekitaldi bakarrean zabalduko dira ontziak, honako ordena honetan: lehenik, posta bidezko botoen ontzia irekiko da; boto emaile bakoitza hauteskunde erroldan agertzen dela egiaztatu ahala, ontzian sartuko dira boto txartelen gutun-azalak. Ondoren, boto txartelen gutun-azalak irekiko dira, eta ozen izendatuko dira boto txartel bakoitzean hautatutako hautagaiak, zenbaketa egiteko.

17.– Baliogabetzat hartuko dira, lehen posta bidezko botoen atalean esandakoez gainera, sinatuta edo urratuta dauden botoak, hautaketaren eduki zehatzaz bestelako adierazpenen bat dutenak edo kargu bakoitzerako hau-

10.– Constituida la Mesa electoral, el Presidente, a la hora fijada en la convocatoria, indicará el comienzo de la votación que finalizará a la hora asimismo señalada en la convocatoria, siendo el Presidente de la Mesa quien así lo notifique llegado el término de la misma, antes de proceder al escrutinio.

11.– Las papeletas de voto deberán ser todas blancas del mismo tamaño, debiendo llevar impresas en un lado correlativamente los cargos a cuya elección se procede.

12.– En la sede en la que se celebren las elecciones deberá haber papeletas de votación suficientes.

13.– Los votantes que acudan personalmente a ejercitar su derecho a votar deberán acreditar a la Mesa electoral su condición de colegiado. La Mesa comprobará su inclusión en el censo y pronunciará en voz alta el nombre y apellidos del votante, indicando que vota, momento en que introducirá la papeleta doblada en la urna correspondiente.

14.– Los votos por correo deberán emitirse mediante papeletas que reúnan las características antes indicadas, que no podrán ir firmadas, en las que constarán correlativamente los cargos y el nombre del candidato elegido para cada uno de los mismos. La papeleta de votación se introducirá doblada en un sobre blando que se cerrará y se introducirá a su vez en otro sobre blanco, en el que deberá constar en el anverso la palabra «Elecciones» y en el reverso el nombre y apellidos del votante y su firma.

15.– Los votos por correspondencia deberán dirigirse al Secretario del Colegio, el cual se hará responsable de su custodia hasta el momento del inicio de las elecciones, en que hará entrega de los recibidos a la Mesa electoral, que los introducirá en la urna designada al efecto. La Mesa electoral admitirá los votos que se reciban hasta el cierre de la votación, antes de proceder a la apertura de las urnas y escrutinio. Los votos por correspondencia que no reúnan las características antedichas deberán ser declarados nulos siempre.

16.– Una vez la Mesa electoral señale el cierre de las votaciones, se procederá en público y en un mismo acto a la apertura de urnas, siguiéndose el orden que a continuación se indica: en primer lugar, se procederá a la apertura de la urna destinada a los votos emitidos por correo, comprobando si el votante se halla colegiado e inscrito en el censo electoral en cuyo caso se introducirá la papeleta en la misma urna. Posteriormente, se procederá a abrir cada u no de los sobres conteniendo la papeleta de voto y se nombrarán en voz alta los candidatos elegidos en cada papeleta, para su escrutinio.

17.– Deberán ser declarados nulos, además de lo antes señalado para los votos por correspondencia, aquellos votos en general que aparezcan firmados o raspados, con expresiones ajenas al estricto contenido de la

tagai bat baino gehiago edo hauteskundeetan hautagai ez diren kideen izenak dituztenak. Hautagaien kopuruari dagokionez erabat bete gabe dauden boto txartelak ezingo dira baliogabetzat hartu, baldin eta baliozko botoa izateko baldintza guztiak betetzen badituzte.

18.– Zenbaketa amaitutakoan, kargu bakoitzerako boto gehien lortu dituzten hautagaien izenak esango dira, emandako botoen kopuru osoa adieraziko da, eta baita boto zurien eta baliogabeen kopurua ere. Ondoren, hautatutako hautagaiak izendatuko dira.

19.– Bete behar den kargu baterako edo gehiagotarako hautagairik ez badago, elkargoan antzinatasun handiena duten elkargokideek beteko dituzte hutsuneak. Irizpide horri berari jarraituko zaio boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko berdinketa hausteko.

20.– Hauteskunde prozesua amaitutakoan ontzietatik ateratako gutun-azalak eta txartelak suntsitu egingo dira, lehiakideen aurrean, irabazlea aldarrikatu ondoren; suntsitu gabe utzi behar dira, halere, balioa ukatu zaien botoak edo erreklamazioren bat eragin dutenak. Horiek aktari atxikiko zaizkio, eta aktarekin batera artxibatuko dira, Mahaiko kideek sinatuta.

21.– Hauteskundeak amaitutakoan, Mahaiko lehendakariak prozesuaren akta emango dio elkargoko idazkariari; idazkariak akta-liburuan erregistratu eta sartuko du, eta elkargoko iragarki oholean argitara emango du.

22.– Ondoren, hogeita hamar eguneko epearen barruan, hautagai hautetsiak beren karguez jabetuko dira. Hautetsiak Gobernu Batzordeko karguez jabetutakoan, idazkariak Gobernu Batzordeko kideen izendapenaren sinestamenduak banatuko ditu, Lehendakaritzaren oniritziarekin.

Edonola ere, Gobernu Batzordea behartuta dago dagozkion karguak eta funtzioak betetzen jarraitzera, Gobernu Batzorde berriko kideek beren karguak hartu bitartean.

***29. artikulua***.– Iraupena.

1.– Zuzendaritza karguetarako izendatutako kargudunek lau urteko agintaldia izango dute, eta erdi bana berrituko dira karguak, bi urtez behin; agintaldi bat bete eta hurrengorako behin besterik ezingo dituzte berriro hautatu, estatutu hauetako Lehenengo Xedapen Iragankorrak dioenaren kalterik gabe.

2.– Gobernu Batzordeko karguren bat edozein arrazoi dela medio hutsik gelditu gero, ez da behin-behineko izendapenik egingo, eta dagokion hauteskundeetarako deialdia egin ahal izango da, berehala; halere, kargudun horien agintaldia aurreko agintaldia amaitzeko gelditzen zen epea amaitu artekoa izango da, eta agintaldi hori

votación o aquellos que indiquen más de un candidato para un mismo cargo o nombres de candidatos que no concurran a la elección. Las papeletas que se hallen solo parcialmente rellenadas en cuanto al número de candidatos pero reúnan los requisitos para su validez, no podrán ser declaradas nulas.

18.– Finalizado el escrutinio, se nombrarán públicamente los nombres de los candidatos que hayan obtenido el mayor número de votos para cada cargo, señalándose el número de votos emitidos y los votos en blanco o nulos. Seguidamente se proclamarán los candidatos elegidos.

19.– En el supuesto de que no hubiese candidatos para todos o alguno de los cargos vacantes, se irán cubriendo con los colegiados de más antigüedad en el Colegio. Igual criterio se aplicará para decidir los empates entre los que hubieren obtenido igual número de votos.

20.– Los sobres y papeletas extraídos de las urnas una vez finalizado el proceso se destruirán en presencia de los concurrentes, una vez proclamada la candidatura ganadora, con excepción de aquellos a los que se hubiera negado validez o que hubieran sido objeto de alguna reclamación, los cuales se unirán al acta y se archivarán con ella una vez rubricada por los miembros de la Mesa.

21.– Concluida la jornada electoral, por el Presidente de la Mesa se hará entrega del Acta del proceso al Secretario del Colegio, quien procederá a su registro e inserción en el Libro de Actas y a su publicación en el tablón de anuncios del Colegio.

22.– Seguidamente, y en un plazo no superior a treinta días se llevará a cabo la toma de posesión de los candidatos elegidos. Una vez tomada posesión por la Junta de Gobierno, el Secretario extenderá las oportunas credenciales de nombramiento de los miembros de la Junta de Gobierno, en los que figurará el visto bueno del Presidente.

En todo caso, la Junta de Gobierno cesante tendrá la obligación de continuar ejerciendo sus cargos y funciones hasta la toma de posesión de la nueva Junta de Gobierno.

***Artículo 29***.– Duración.

1.– Todos los nombramientos de cargos directivos tendrán un mandato de duración de cuatro años y se renovarán por mitad cada dos, pudiendo ser reelegidos de forma consecutiva una sola vez, sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Transitoria Primera de los presentes Estatutos.

2.– Para aquellos casos en que se produjesen por cualquier causa vacantes en los cargos de la Junta de Gobierno, no se hará nombramiento provisional alguno pudiendo convocarse inmediatamente las elecciones correspondientes, si bien el mandato del así elegido se limitará al que le quedase por cumplir según el punto

ez da kontuan hartuko hurrenez hurren beste agintaldi baterako hautatua izateko eskubideari dagokionez.

***30. artikulua.***– Kargua uztea eta zentsura mozioa.

Gobernu Batzordeko kideek honako arrazoi hauetako batengatik utziko dute beren kargua:

a) Agintaldia amaitzea.

b) Interesdunak karguari uko egitea.

c) Hiru saiotara huts egitea, bidezko arrazoirik gabe.

d) 12. artikuluan aipatzen diren arrazoiak.

e) Beren kontrako mozio zentsura bat aurrera ateratzea, ondoren zehazten den eran:

Elkargokideen eskariz Ezohiko Batzar Orokorra elkartzeko bete beharreko baldintzak beteta, elkargokideek zentsura mozioak aurkeztu ahal izango dituzte, Gobernu Batzordeko kideen kontra nahiz Batzorde osoaren kontra. Horretarako, argi eta garbi adierazi behar dira zentsura mozioaren oinarrizko arrazoiak. Baldintza horiek betetzen badira, Gobernu Batzordea behartuta egongo da hilabeteko epearen barruan, gehienez ere, Ezohiko Batzar Orokorrerako deia egitera; bilera horretako gai-zerrendako puntu bakarra zentsura mozioa izango da.

Zentsura-mozioa onartuz gero, mozioa jaso duten kideek eta, hala dagokionean, Gobernu Batzorde osoak eman beharko du dimisioa, eta kargu berriak hautatzeko deialdia egingo da, berehala.

Edonola ere, zentsura-mozioak aurrera egin dezan, Batzar Orokorrean elkargokideen erdiek gehi batek parte hartu beharko dute.

***31. artikulua.***– Batzorde Iraunkorra.

Batzorde Iraunkorrak hilean behin egingo du bilera, gutxienez; hala ere, gaiek hala eskatzen dutela-eta, sarriago ere elkar daiteke.

Batzorde Iraunkorraren bileretarako deialdiak bilerak berak baino hogeita lau ordu lehenago egingo dira, idatziz, eta dagokien gai-zerrenda adierazita. Ezingo da hartu gai-zerrendan agertzen ez diren gaiei buruzko erabakirik. Akordioak parte-hartzaileen gehiengoaren aldeko botoarekin hartuko dira, eta lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

***32. artikulua.***– Gobernu Batzordea.

Ohiko nahiz Ezohiko Batzar Orokorretarako gai-zerrenda Gobernu Batzordeak zehaztuko du; eta Osoko Bilkurarena eta Batzorde Iraunkorrarena, berriz, lehendakariak, hori guztia estatutu hauek diotenaren kalterik gabe.

anterior de este artículo, no computando el mandato a efectos de reelección consecutiva.

***Artículo 30.***– Cese y moción de censura.

Los miembros de la Junta de Gobierno cesarán por las causas siguientes:

a) Expiración del término o plazo para el que fueron elegidos.

b) Renuncia del interesado.

c) Falta injustificada de asistencia a tres sesiones.

d) Por concurrir en ellos las causas señaladas en el artículo 12.

e) Por moción de censura en la forma que a continuación se establece:

Con los requisitos establecidos para solicitar la convocatoria de Junta General Extraordinaria a solicitud de los colegiados, podrá instarse una moción de censura a miembros de la Junta de Gobierno, o a ésta en general, expresando con claridad las razones en que se funde, quedando obligada la Junta de Gobierno a convocarla en el plazo máximo de un mes y como punto único del orden del día.

Si la moción de censura fuere aprobada, los miembros censurados o en su caso toda la Junta deberán dimitir, convocándose inmediatamente la elección de nuevos cargos.

En todo caso, para que prospere la moción de censura, será necesaria la asistencia a la Junta General de la mitad más uno de los colegiados.

***Artículo 31.***– Comisión Permanente.

La Comisión Permanente se reunirá ordinariamente una vez al mes, sin perjuicio de que cuando los asuntos lo requieran lo efectúe con mayor frecuencia.

Las convocatorias de la Comisión Permanente se cursarán con veinticuatro horas de antelación, por escrito y con el orden del día correspondiente. No se podrán adoptar acuerdos sobre aquellos asuntos que no figuren en el orden del día. Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos de los asistentes, contando el Presidente con voto de calidad.

***Artículo 32.***– Junta de Gobierno.

El orden del día de las Juntas Generales, ordinarias o extraordinarias, será fijado por la Junta de Gobierno, y el del Pleno y de la Comisión Permanente serán establecidos por el Presidente, todo ello sin perjuicio de lo dispuesto en los presentes Estatutos.

VI. KAPITULUA
PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

***33. artikulua.***– Lehendakaria.

Lehendakaria elkargoaren ordezkari gisa arituko da orotariko agintari eta erakundeen aurrean, eta lege, administrazio eta elkargo agindu, akordio eta xedapenak betetzea zainduko du, elkargoaren lurralde-eremuan.

Horrez gainera, honako funtzio hauek izango ditu:

1.– Ohiko nahiz Ezohiko Batzar Orokor guztien buru aritzea.

2.– Saioei hasiera ematea, saioak zuzentzea eta saioak amaitutzat ematea.

3.– Agintari, korporazio, erakunde administratibo eta partikularrentzako txostenak eta jakinarazpenak baimentzea.

4.– Bankuetan kontu korronteak irekitzeko, dirua sartzeko eta dirua ateratzeko txekeak baimentzea, eta, oro har, administrazio eta finantza arloko kudeaketa guztia baimentzea, diruzainarekin batera, betiere.

5.– Elkargoko idazkariak idatzitako egiaztagiriei onespena ematea.

6.– Ordainketa-aginduak eta kontu-liburuak onartzea, diruzainarekin batera.

7.– Orotariko kontratuak sinatzea.

8.– Premiazko arrazoien ondorioz hartu beharreko erabakiak hartzea, nahiz eta gaiarengatik berez Batzar Orokorraren edo Gobernu Batzordearen ardurapekoak izan; premiazko erabaki horiek, hala ere, dagokien organoak egiten duen lehenengo bileran berretsi beharko dira.

***34. artikulua.***– Lehendakariordea.

Lehendakariordeak lehendakariak ematen dizkion funtzio guztiak beteko ditu, eta lehendakariaren ordezko modura arituko da, hura kanpoan edo gaixo badago, parte hartzerik ez badu, ezetsita badago edo haren kargua bete gabe badago.

***35. artikulua.***– Idazkaria.

Hauek dira idazkariaren funtzioak:

1.– Elkargoaren ekitaldietarako deialdiak idaztea eta bideratzea, lehendakariak ematen dizkion jarraibideak betez eta behar adinako aurrerapenaz.

2.– Batzar Orokorren aktak idaztea, baita Gobernu Batzordearenak eta Batzorde Iraunkorrenak ere.

3.– Zerbitzu hobea eta ordenatuagoa eskaintzeko behar diren liburuak betetzea, baita Tituluen Erregistroa-Liburua ere.

4.– Elkargora iristen diren eskari eta jakinarazpen guztiak jasotzea eta lehendakariari horien berri ematea.

CAPÍTULO VI
DE LOS ÓRGANOS UNIPERSONALES

***Artículo 33.***– Del Presidente.

El Presidente ostentará la representación del Colegio ante toda clase de Autoridades y Organismos y velará dentro del ámbito territorial de actuación del Colegio por el cumplimiento de las prescripciones, acuerdos y disposiciones legales, administrativas y colegiales.

Además, le corresponderán las siguientes funciones:

1.– Presidir todas las Juntas Generales, ordinarias y extraordinarias.

2.– Abrir, dirigir y levantar las sesiones.

3.– Autorizar los informes y comunicaciones que se dirijan a Autoridades, Corporaciones, Ente administrativos y particulares.

4.– Autorizar la apertura de cuentas corrientes bancarias, imposiciones y cheques para retirar cantidades y, en general, toda la gestión administrativo-financiera, actuando siempre conjuntamente con el Tesorero.

5.– Visar todas las certificaciones que se expidan por el Secretario del Colegio.

6.– Aprobar los libramientos y órdenes de pago y libros de contabilidad, conjuntamente con el Tesorero.

7.– Suscribir toda clase de contratos.

8.– Adoptar las resoluciones que procedan por razones de urgencia aun cuando por razón de la materia correspondan a la Asamblea General o la Junta de Gobierno, si bien deberán ser sometidas a ratificación en la primera reunión que se celebre.

***Artículo 34.***– Del Vicepresidente.

El Vicepresidente llevará a cabo todas aquellas funciones que le confiera el Presidente, asumiendo las de este en caso de ausencia, enfermedad, abstención, recusación o vacante.

***Artículo 35.***– Del Secretario.

Corresponden al Secretario las siguientes funciones:

1.– Redactar y dirigir los oficios de citación para los actos del Colegio, según las instrucciones que reciba del Presidente y con la anticipación debida.

2.– Redactar las actas de las Juntas generales y las que celebren las Juntas de Gobierno y Comisión Permanente.

3.– Llevar los libros necesarios para el mejor y más ordenado servicio así como el Libro-Registro de títulos.

4.– Recibir y dar cuenta al Presidente de todas las solicitudes y comunicaciones que se remitan al Colegio.

5.– Interesdunek eskatutako egiaztagiriak idaztea.

6.– Bulegoa antolatzea eta zuzentzea, ordutegiak Batzorde Iraunkorrarekin batera antolatuta.

7.– Langileen Buru izatea.

8.– Ekitaldiaren amaieran Urteko Txostena idaztea.

***36. artikulua.***– Diruzaina.

Diruzainaren funtzioak dira:

1.– Elkargoaren funtsak biltzea eta zaintzea.

2.– Lehendakariak emandako ordainketa aginduak betetzea.

3.– Hilero aurreko hilabeteko diru sarreren eta gastuen kontua gauzatzea, eta, oro har, amaitutako ekitaldi ekonomikoarena lantzea.

4.– Urteko aurrekontua idaztea, Gobernu Batzordeak Batzar Orokorrari aurkeztu eta Batzarrak onespena eman diezaion.

5.– Elkargoaren kontuetan dirua sartzea eta horietatik dirua ateratzea, lehendakariarekin edo, hala dagokionean, lehendakariordearekin batera.

6.– Elkargoaren ondasunen inbentarioa egitea; bera izango da ondasun horien administratzailea.

7.– Kontuak kontrolatzea eta kutxa egiaztatzea.

***37. artikulua.***– Ordezkatze erregimena.

Edozein arrazoi dela-medio lehendakariordea, idazkaria edo diruzaina ez badaude, lehen, bigarren eta hirugarren batzordekideak izango dira haien ordezko, hurrenez hurren.

***38. artikulua.***– Ordezko batzordeak.

Batzar Orokorrak nahiz Gobernu Batzordeak ordezko batzordeak eratu ahal izango ditu, elkargoak egoki irizten dien gai zehatzetarako; batzorde horien funtzioak eta funtzionamendu erregimena dagokion batzordea sortzeko ekitaldian zehaztuko dira.

VII. KAPITULUA
DIZIPLINA ERREGIMENA

***39. artikulua.***– Hutsegiteen sailkapena.

1.– Beren eginkizun profesionaletan eta elkargoaren estatutuek ezartzen dituztenetan huts egiten duten elkargokideei diziplina zehapena ezarri ahal izango zaie.

Elkargokideen ekintzetan legez kanpoko jokabideren bat izan dela esateko arrazoizko aztarnak daudenean, dagokion botere judizialari jakinarazi beharko zaio gorabehera horren berri.

2.– Zuzenketa edo diziplina zehapen ekar dezaketen hutsegiteetan, hutsegite oso larriak, larriak eta arinak bereizten dira.

5.– Expedir las certificaciones que se soliciten por los interesados.

6.– Organizar y dirigir las oficinas, organizando los horarios de acuerdo con la Comisión Permanente.

7.– Ostentar la Jefatura de Personal.

8.– Redactar la Memoria anual al cierre del ejercicio.

***Artículo 36.***– Del Tesorero.

Corresponderá al Tesorero:

1.– Recaudar y custodiar los fondos del Colegio.

2.– Pagar los libramientos que expida el Presidente.

3.– Formular mensualmente la cuenta de ingresos y gastos del mes anterior y normalmente la del ejercicio económico vencido.

4.– Redactar los presupuestos anuales que la Junta de Gobierno haya de presentar a la aprobación de la Junta General.

5.– Ingresar y retirar fondos de las cuentas del Colegio, conjuntamente con el Presidente o Vicepresidente en su caso.

6.– Llevar inventario de los bienes del Colegio, de los que será Administrador.

7.– Controlar la contabilidad y verificar la Caja.

***Artículo 37.***– Del régimen de sustituciones.

En caso de ausencia por cualquier motivo de Vicepresidente, del Secretario o del Tesorero, estos serán sustituidos por los vocales primero, segundo y tercero, respectivamente.

***Artículo 38.***– De las comisiones delegadas.

Tanto la Junta o Asamblea General como la Junta de Gobierno podrán crear comisiones delegadas para aspectos específicos seleccionados por el Colegio, estableciendo en el acto de su creación sus funciones y régimen de funcionamiento.

CAPÍTULO VII
DEL RÉGIMEN DISCIPLINARIO

***Artículo 39.***– Clasificación de las infracciones.

1.– Los colegiados que infrinjan sus deberes profesionales y los Estatutos del Colegio podrán ser sancionados disciplinariamente.

Se deberán poner en conocimiento de la autoridad judicial correspondiente las actuaciones de los colegiados que presenten indicios racionales de conducta delictiva.

2.– Las infracciones que pueden conllevar corrección o sanción disciplinaria se clasifican en muy graves, graves y leves.

***40. artikulua.***– Hutsegiteak.

1.– Hutsegite arinak dira:

a) Elkargoak ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea, adibidez, elkargoaren eskariei ez erantzutea edo eskatutako txostenak ez aurkeztea.

b) Estatutu hauetan ezarritako betebeharren edo debekuren bat urratzea, hutsegite larri edo oso larritzat hartuak ez direnean.

2.– Hutsegite larriak dira:

a) Gainerako elkargokideekiko edo elkargoko organoekiko nahiz jarduera profesionalaren ondorioz harremana duen gainerako pertsona edo erakundeekiko begirunerik eza edo irain larria adierazten duten ekintzak, eta horien guztien kontrako eraso fisikoak.

b) Lehia bidegabea.

c) Lanbideari dagozkion betebeharrak ez betetzea, profesionalaren zerbitzua eskatu edo hitzartzen duenari kaltea badakarkio.

d) Asegurua edukitzeko betebeharra ez betetzea.

e) Elkargoaren edo haren organoen ohiko jarduera eragozten edo asaldatzen duten ekintzak.

f) Dagokion moduan eskatutako prestazio profesionala emateko betebeharra ez betetzea, prestazio hori ezinezkoa dela egiaztatzen duen bidezko arrazoirik gabe.

g) Kargudun hautatutako kideak kargu korporatiboetako jardunean leialtasunik gabe aritzea.

h) Bi urteko epean lau hutsegite arin egitea.

3.– Hutsegite oso larriak dira:

a) Betebehar profesionalak ez betetzea, profesionalaren zerbitzua eskatu edo hitzartzen duenari kalte larria badakarkio.

b) Sekretu profesionala urratzea.

c) Lanbidean jardutea, horretarako gaitasunez gabetuta egonik edo horretarako debekua jasota.

d) Lanean iruzurrezko delituak egitea, edonolako partaidetza maila edukita ere.

e) Gaixoak gaiztakeriaz eta nahita ez artatzea, profesionalaren zerbitzua eskatu edo hitzartzen duenari kalte larria badakarkio.

f) Lanean mozkortuta edo drogen eraginpean aritzea, eskuarki.

g) Bi urteko epean gutxienez bi hutsegite larri egitea.

***41. artikulua.***– Zehapenak.

Hauek dira aurreko artikuluetan zehaztutako hutsegiteetan aplika daitezkeen zigorrak:

1.– Hutsegite edo arau-hauste arinetan:

***Artículo 40.***– Infracciones.

1.– Constituyen faltas leves:

a) La desatención respecto al cumplimiento de los deberes colegiales, tales como no responder a los requerimientos o solicitudes de respuesta o informes solicitados por el Colegio.

b) La infracción de los deberes o prohibiciones establecidos en los presentes estatutos cuando no tengan la consideración de faltas graves o muy graves.

2.– Constituyen faltas graves:

a) Los actos de desconsideración u ofensa graves hacia cualquiera de los demás colegiados u órganos colegiales, y de las personas o instituciones con quienes se relacione como consecuencia de su ejercicio profesional así como la agresión física a los mismos.

b) La competencia desleal.

c) El incumplimiento de los deberes profesionales cuando resulte perjuicio para quienes soliciten o concierten la actuación profesional.

d) El incumplimiento del deber de aseguramiento.

e) Los actos que impidan o alteren el normal funcionamiento del Colegio o de sus órganos.

f) El incumplimiento de la prestación profesional salvo existencia de causa justificada que imposibilite dicha prestación, cuando hubiere sido debidamente requerido para ello.

g) La infidelidad en el ejercicio de los cargos corporativos para los que fueren elegidos.

h) La reiteración de cuatro faltas leves en el plazo de dos años.

3.– Constituyen faltas muy graves:

a) El incumplimiento de deberes profesionales cuando resulte perjuicio grave para quienes soliciten o concierten la actuación profesional.

b) La vulneración del secreto profesional.

c) El ejercicio de la profesión en situación de inhabilitación profesional o prohibición.

d) La comisión de delitos dolosos, cualquiera que fuera el grado de participación, como consecuencia del ejercicio de la profesión.

e) La desatención maliciosa e intencionada de los pacientes, cuando resulte perjuicio grave para quien solicite o concierte la actuación profesional.

f) La embriaguez o toxicomanía habitual en el ejercicio de la profesión.

g) La comisión de, al menos, dos faltas graves en el plazo de dos años.

***Artículo 41***.– Sanciones.

Las sanciones aplicables a las infracciones tipificadas en los artículos anteriores son las siguientes:

1.– A las infracciones o faltas leves:

a) Ahozko ohartarazpena.

b) Idatzizko ohartarazpena.

2.– Hutsegite edo arau-hauste larrietan:

a) Lanbidean jarduteko gaitasunaz gabetzea, ez urtebete baino gehiagorako, 18/1997 Legearen 16. artikuluak aurreikusten duenari jarraituz.

3.– Hutsegite edo arau-hauste larrietan:

a) Lanbidean jarduteko gaitasunaz gabetzea, urtebete eta egun batetik hogei urterako eperako, 18/1997 Legearen 16. artikuluak aurreikusten duenari jarraituz.

b) Elkargoko karguak kentzea eta elkargoan zuzendaritza kargurik izateko gaitasunaz gabetzea, lau urtetik gorako eta zortzi urteko gehieneko eperako.

4.– Zehapenak mailakatzeko, gertaeraren nondik norako objektiboak eta egilearen nondik norako subjektiboak kontuan hartuko dira, betiere, eta nondik norako horien arabera zehaztuko da erantzukizunaren larritasuna.

5.– Elkargokideei ezartzen zaizkien diziplina zehapenak iraungi egingo dira honako epe hauetan:

a) Zehapena ezarri eta urtebetera, hutsegite arinen ondoriozko zehapenak.

b) Zehapena ezarri eta bi urtera, hutsegite larrien ondoriozko zehapenak.

c) Zehapena ezarri eta hiru urtera, hutsegite oso larrien ondoriozko zehapenak.

Edonola ere, lanbidean jarduteko gaitasuna hiru urterako edo hortik gorako epe baterako kenduz gero, iraungitze epea ere zehapenaren epea adinakoa izango da.

6.– Zehapenak iraungitzeko epea zehapena dakarren ebazpena indarrean sartu eta hurrengo egunean hasiko da.

Iraungitze epea eten egingo da, betearazte prozedura abiatuz gero, interesdunari horren berri emanda; eta epea berriro ere abian jarriko da, baldin eta hutsegileari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiak direla medio prozedura hori sei hilabetetik gora ez atzera ez aurrera egonez gero.

7.– Elkargokideei hutsegite oso larrien ondorioz ezarritako zehapenak Gobernu Batzordearen Osoko Bilkurak hartuko ditu, isilpeko bozketaz, eta bilerako parte-hartzaileen bi herenen onespena beharko dute.

***42. artikulua.***– Zehapen prozedura.

Diziplina erregimenari jarraituz, ezingo zaie elkargokideei inolako zehapenik ezarri, aurrez espedientea ireki gabe eta interesduna entzun gabe.

Gobernu Batzordeak, ofizioz nahiz salaketa bidez, hutsegitea izan litekeen ekintzaren baten berri izanez gero, espedientea abiarazteko erabakia hartuko du. Espedientea honako urrats hauei jarraituz gauzatuko da:

a) Amonestación verbal.

b) Amonestación escrita.

2.– A las infracciones o faltas graves:

a) Inhabilitación profesional por tiempo no superior a un año en los términos prevenidos por el artículo 16 de la Ley 18/1997.

3.– A las infracciones o faltas muy graves:

a) Inhabilitación profesional por tiempo comprendido entre un año y un día y veinte años, en los términos del artículo 16 de la Ley 18/1997.

b) Suspensión e inhabilitación para el desempeño de todo cargo colegial directivo por plazo superior a cuatro años y hasta un máximo de ocho años.

4.– Para la graduación de las sanciones se ponderarán en todo caso las circunstancias objetivas del hecho y las subjetivas de su autor, moderándose o agravándose la responsabilidad de éste según la concurrencia de dichas circunstancias.

5.– Las sanciones disciplinarias que se impongan a los colegiados, prescribirán una vez cumplidas:

a) Al año para las sanciones por falta leve.

b) A los 2 años para las sanciones por falta grave.

c) A los 3 años para las sanciones por falta muy grave.

No obstante, en las sanciones de inhabilitación profesional por tiempo igual o superior a los tres años, el plazo de prescripción será igual al del período de sanción.

6.– El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

La prescripción se interrumpirá por la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir el plazo si el mismo está paralizado durante más de seis meses por causa no imputable al infractor.

7.– Las sanciones aplicables a los colegiados por falta muy grave se adoptarán por el Pleno de la Junta de Gobierno mediante votación secreta y con la conformidad de las dos terceras partes de los miembros asistentes.

***Artículo 42.***– Procedimiento sancionador.

No podrá imponerse, en régimen disciplinario, sanción alguna a los colegiados sin previa apertura de expediente y con audiencia del interesado.

Conocida por la Junta de Gobierno, de oficio o por denuncia, la comisión de un hecho que pudiera ser constitutivo de falta, acordará la incoación del oportuno expediente que se seguirá por los siguientes trámites:

1.– Gobernu Batzordeak zehapen espedientea abiatzea erabakitakoan, 18/1997 Legearen 19. artikuluak aurreikusten duenaren arabera gauzatuko da. Instruktore bat izendatuko da -lanbidean hiru urtetik gora daramatzan elkargokide bat- eta, hala dagokionean, idazkari bat ere bai.

Instruktoreak izendapena jakinarazten den egunetik hiru laneguneko epea izango du funtzio hori ez betetzeko egoki irizten dion desenkusa edo arrazoiak Gobernu Batzordeari idatziz azaltzeko.

Gobernu Batzordeak hamar eguneko epean emango du alegazio horiei buruzko ebazpena. Alegazioak aintzat hartzekoak direla irizten badio, beste instruktore bat izendatuko du, lehen azaldutako modu berean.

Espedientea irekitzen zaion elkargokideak instruktorearen izendapena jakinarazten diotenetik hiru laneguneko epea izango du izendatutako kide hori errekusatzeko egoki irizten dien arrazoiak Gobernu Batzordeari azaltzeko. Arrazoi horiek Kode Zibilean epaileak eta magistratuak errekusatzeko aintzat hartzen diren berberak izango dira. Gobernu Batzordeak hamar eguneko epean emango du errekusatze eskariaren gaineko ebazpena, eta ezingo da ebazpen horren kontrako inolako errekurtsorik jarri.

2.– Instruktorearen izendapena behin betikoa denean, Gobernu Batzordeak haren eskura jarriko ditu bere jarduna gauzatzeko behar dituen eta egoki diren baliabideak.

Instruktoreak hamar eguneko epea izango du gertaerak argitzeko eta zigorgarri izan daitezkeen erantzukizunak zehazteko egoki irizten dien froga eta jarduketa oro agintzeko.

3.– Gauzatutako jarduketak aztertutakoan, elkargokideari egozten zaizkion gertaerak azaltzeko salaketa-zerrenda bat osatuko da.

4.– Interesdunei salaketa-zerrendaren berri emango zaie, eta zortzi eguneko epea emango zaie horri erantzun eta beren defentsan komeni zaizkien frogak proposatzeko.

5.– Salaketa-zerrendari erantzundakoan edo horretarako epea amaitutakoan, eta, hala dagokionean, proposaturiko frogak gauzatutakoan, instruktoreak ebazpen-proposamena prestatuko du, eta interesdunei jakinaraziko die, egoki irizten dieten alegazioak egin ditzaten, hamar eta hamabost egun bitarteko epean.

6.– Ebazpen-proposamena, gauzatutako jarduketa guztiekin batera, Gobernu Batzordeari helaraziko zaio, hark ebazpena eman dezan. Batzordeak instruktoreak aldez aurretik prestatutako zehapen-proposamenaren gaineko eztabaida egin eta espedientea ireki zaion elkargokideak aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu; eta, ondoren, ebazpen arrazoitua emango du, honako erabaki hauetakoren bat hartuta:

1.– Acordada por la Junta de Gobierno la incoación de expediente disciplinario, éste se desarrollará según lo prevenido en el artículo 19 de la Ley 18/1997. Se nombrará un Instructor, que deberá ser un colegiado que lleve más de tres años de ejercicio profesional y, en su caso, un Secretario.

El instructor, en el plazo de tres días hábiles a partir del siguiente al de la notificación del nombramiento, podrá manifestar por escrito ante la Junta de Gobierno las causas de excusa o abstención que crea concurrentes.

La Junta de Gobierno resolverá sobre estas alegaciones en el plazo de diez días. Si las encontrare estimables, procederá a nombrar nuevo Instructor en la misma forma.

El colegiado expedientado, una vez le haya sido notificado el nombramiento del Instructor, podrá manifestar ante la Junta de Gobierno, en el plazo de tres días hábiles, las causas de recusación que estime que concurren en la persona designada. Dichas causas serán las mismas que el Código Civil establece para la recusación de Jueces y Magistrados. La Junta de Gobierno resolverá sobre este incidente en el plazo de diez días, sin que contra su acuerdo quepa recurso alguno.

2.– Una vez firme el nombramiento del Instructor, la Junta de Gobierno deberá poner a su disposición los medios necesarios y adecuados para que pueda desarrollar su actividad.

El Instructor, en el término de diez días, ordenará la práctica de cuantas pruebas y actuaciones considere convenientes para el esclarecimiento de los hechos y la determinación de las responsabilidades susceptibles de sanción.

3.– A la vista de las actuaciones practicadas se formulará un Pliego de Cargos en el que se expondrán los hechos imputados.

4.– El pliego de cargos se notificará a los interesados, concediéndoles un plazo de ocho días para poder contestarlo y proponer las pruebas que interesen en su descargo.

5.– Contestado el Pliego de Cargos o transcurrido el plazo para hacerlo y practicadas, en su caso, las pruebas propuestas, el Instructor formulará la Propuesta de Resolución, que se notificará a los interesados para que, en plazo no inferior a diez días ni superior a quince, aleguen cuanto consideren conveniente.

6.– La Propuesta de Resolución, con todo lo actuado, se remitirá a la Junta de Gobierno para su resolución. La Junta, previo debate de la propuesta de sanción realizada por el Instructor, así como el análisis de las alegaciones efectuadas por el expedientado, procederá a dictar resolución motivada por la que podrá acordarse:

a) Instruktoreak egindako zehapen-proposamena baztertzea eta jarduketak artxibatzea.

b) Instruktoreak egindako zehapen-proposamena baztertzea eta beste zehapen bat ezartzea.

c) Instruktoreak egindako zehapen-proposamena onartzea, osorik edo parte batean.

***43. artikulua.***– Errekurtsoak.

1.– Elkargoko organoen akordioak berehala betearaztekoak izango dira; hala behar denean, erabakiaren egiaztapena hartuko da oinarritzat.

Diziplina-ebazpenen kontra berrezartze errekurtsoa ezarri ahal izango dute interesdunek, administrazioarekiko auzibidera jo aurretik. Errekurtsoa ezarri eta bi hilabeteko epean horri buruzko berariazko ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsitzat joko da, eta zabalik geldituko da bide jurisdikzionala.

2.– Errekurtsoa ezartzeak ez du etengo aurkaratutako ekintzaren betearazpena.

Gobernu Batzordeak diziplina-ebazpenak behin-behinean eteteko erabakia hartu ahal izango du, Epaitegiek auziari buruzko ebazpena eman arte, interesdunak administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan errekurtsoa jarriz gero.

VIII. KAPITULUA
ERREGIMEN EKONOMIKOA

***44. artikulua.***– Finantzatzea.

Euskadiko Logopeden Elkargo Ofizialaren funtsek eta baliabideek jatorri hauek izan ditzakete:

a) Batzar Orokorrak urtero elkargokide guztiei ezartzen dizkien nahitaezko ekarpen ohiko nahiz ezohikoak, elkargoan sartzeari edo jarraitzeari dagozkionak.

b) Elkargoaren jardueraren beraren ondoriozko diru sarrerak edo mozkinak, eta Batzar edo Batzorde Orokorrak egiaztagiri, irizpen, onespen eta abarretarako finkatutako tasak.

c) Elkargokideek edo hirugarrenek beren borondatez, Zuzenbideari jarraituz eta Gobernu Batzordearen onespenaz egindako emaitza, uzte eta ekarpenak.

d) Administrazioak edo izaera publiko nahiz pribatuko erakundeek indarrean dagoen legedia betez emandako diru laguntzak edo orotariko laguntzak. Diru laguntza horien arauek finkatutako erabilera emango zaie.

e) Bere ondasun higagarri nahiz higiezinen mozkinak.

f) Estatutu hauetan aipatzen ez diren beste zerbitzu batzuk eskaintzetik eratorritako etekinak, elkargokideen eskutik jasoak, edo edozein zerbitzu edo hitzarmenengatik hirugarrenen eskutik jasoak.

a) Rechazar la propuesta de sanción realizada por el Instructor, acordando el archivo de las actuaciones.

b) Rechazar la propuesta de sanción realizada por el Instructor, imponiendo una sanción distinta.

c) Aprobar la propuesta del Instructor íntegra o parcialmente.

***Artículo 43.***– Recursos.

1.– Los acuerdos de los órganos colegiales serán inmediatamente ejecutivos, sirviendo de base en aquellos que sea necesaria la certificación del acuerdo.

Contra las resoluciones disciplinarias los interesados podrán interponer recurso de reposición previo al Contencioso Administrativo. Transcurridos dos meses desde la interposición del recurso sin resolución expresa sobre el mismo, se entenderá desestimado, quedando abierta la vía jurisdiccional.

2.– La interposición de cualquier recurso no suspenderá la ejecución del acto impugnado.

La Junta de Gobierno podrá acordar la suspensión provisional de las resoluciones disciplinarias hasta que el asunto sea resuelto por los Tribunales en caso de que el interesado interponga recurso ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

CAPÍTULO VIII
DEL RÉGIMEN ECONÓMICO

***Artículo 44.***– Financiación.

Los fondos y recursos del Colegio Oficial de Logopedas de Euskadi provendrán:

a) De las aportaciones ordinarias o extraordinarias de ingreso o permanencia que por colegiado sean fijadas anualmente por la Asamblea General con carácter obligatorio para todos los colegiados.

b) De los ingresos o rendimientos que se generen por actividad propia y las tasas que se establezcan por la Asamblea o Junta General por certificaciones, dictámenes, visados y otros.

c) De las donaciones, legados aportaciones por parte de colegiados o de terceros que se efectúen voluntariamente conforme a Derecho y sean debidamente aceptadas por la Junta de Gobierno.

d) De las subvenciones o ayudas de todo tipo, procedentes de la Administración o de otros Organismos de carácter público o privado que procedan de acuerdo con la legalidad vigente. El destino final de dichas subvenciones será el que establezcan sus propias normas reguladoras.

e) De los rendimientos de su patrimonio mobiliario o inmobiliario.

f) De los beneficios generados, procedentes de colegiados, por la prestación de otros servicios no incluidos en los presentes Estatutos o procedentes de terceros, por la prestación de cualquier servicio o suscripción de convenios.

g) Oro har, elkargoak legez bere esku dituen ondasun, eskubide edo baliabidetatik eratorritako beste edozein mozkin, etekin edo sarrera.

***45. artikulua.***– Elkargokideen kuotak.

Elkargokideen kuotak:

a) Elkargoan sartzeko kuota bakarra da, eta Gobernu Batzordeak finkatzen du kuota horren zenbatekoa.

b) Elkargokide guztiak behartuta daude hileko kuotak ordaintzera. Kuota horien ordainketa Jurisdikzio Zibilaren bidetik eskatu ahal izango da.

c) Batzar Orokorraren eskumena izango da aparteko kuotak ezartzea; horiek ordaintzera ere behartuta daude elkargokide guztiak.

d) Elkargokideen kuotak, arruntak nahiz apartekoak, Gobernu Batzordeak zehaztutako prozedurari jarraituz ordaindu beharko zaizkio elkargoari.

e) Kuota arrunten zenbatekoa urtero-urtero aldatuko da, Kontsumorako Prezioen Indizeari dagokion ehunekoan. Edonola ere, Gobernu Batzordeak indize horrek adierazten duena baino igoera handiagoak ezarri ahal izango ditu.

***46. artikulua.***– Kontu-ikuskatzeak.

Euskadiko Logopeden Elkargo Ofizialari kanpo ikuskaritza egingo dio, urtean behin, kontu ikuskatzaileen enpresa batek. Ikuskaritza horrek ekitaldiko alderdi ekonomiko guztiak aztertuko ditu, lege arautzailearen arabera Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari dagokion ikuskatze eskumenari kalterik egin gabe.

IX. KAPITULUA
AKTA LIBURUAK ETA ERREGISTROAK

***47. artikulua.***– Aktak.

1.– Elkargoan bi akta-liburu izango dira; liburu horietako batean Batzar Orokorraren aktak idatziko dira, eta, bestean, Gobernu Batzordearenak.

2.– Gobernu Batzordearen aktak batzordekide guztiek sinatu behar dituzte.

3.– Batzar Orokorraren aktak lehendakariaren, idazkariaren eta hiru ikuskatzaileren sinaduren bidez baimendu eta onartuko dira; ikuskatzaileak Batzar Orokorrean izendatuko dituzte, eta akta sinatuko dute, eta lehendakariarekin eta idazkariarekin batera aktak sinatuko dituzte.

***48. artikulua.***– Erregistroa.

Dagokien ekintzak gauzatzen diren egunetik hilabeteko epean, gehienez ere, Gobernu Batzordeak Euskadiko Profesionalen Elkargoen Erregistrora bidali behar ditu honako hauek, Erregistroan sartuta gera daitezen:

a) Zuzendaritza organoen osaera, organoetako kideen identifikazioarekin.

g) En general, cualquier otro rendimiento, beneficio o ingreso que pueda derivarse de los bienes, derechos o recursos de cualquier naturaleza de que disponga legalmente el Colegio.

***Artículo 45.***– De las cuotas colegiales.

Cuotas colegiales:

a) La cuota de inscripción es única y su cuantía será fijada por la Junta de Gobierno.

b) Todos los colegiados vienen obligados a satisfacer las cuotas mensuales que se fijen. El impago de las mismas podrá ser reclamado ante la Jurisdicción Civil.

c) Será competencia de la Junta General el establecimiento de cuotas extraordinarias cuyo pago será obligatorio para todos los colegiados.

d) Las cuotas colegiales, ordinarias o extraordinarias, habrán de ser satisfechas al Colegio según el procedimiento establecido por la Junta de Gobierno.

e) El importe de las cuotas ordinarias variará anualmente en el porcentaje correspondiente al índice de Precios al Consumo. No obstante, la Junta de Gobierno podrá aprobar variaciones superiores a dicho índice.

***Artículo 46.***– Auditoría.

El Colegio de Logopedas del País Vasco será objeto de auditoría externa con periodicidad anual y por parte de una empresa de auditores, auditoría que tendrá por objeto todos los aspectos económicos del ejercicio, sin perjuicio de la facultad fiscalizadora que corresponde al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de acuerdo con la ley reguladora.

CAPÍTULO IX
DE LOS LIBROS DE ACTAS E INSCRIPCIONES

***Artículo 47.***– Actas.

1.– En el Colegio se llevarán obligatoriamente dos Libros de Actas, donde se transcribirán separadamente las correspondientes a la Junta General y a la Junta de Gobierno.

2.– Las Actas correspondientes a la Junta de Gobierno serán suscritas por todos los miembros.

3.– Las Actas correspondientes a la Junta General serán autorizadas y aprobadas por las firmas del Presidente y Secretario así como las de tres Interventores, que se designarán en la Junta General y que suscribirán el acta con el Presidente y el Secretario.

***Artículo 48.***– Registro.

Dentro del plazo máximo de un mes, computado desde que el hecho causante haya tenido lugar, la Junta de Gobierno deberá remitir al Registro de Colegios Profesionales de Euskadi, para su inscripción en el mismo:

a) La composición de los órganos directivos, con identificación de las personas que los ostentan.

b) Elkargoko estatutuen eta elkargoaren izenaren aldaketak.

c) Barne erregimeneko araudiak.

d) Helbide, egoitza eta ordezkaritzak.

e) Elkargoaren eratzeak, bategiteak, xurgatzeak, zatiketak eta desegiteak.

***49. artikulua.***– Argitalpena.

Elkargoaren estatutuak eta estatutuen aldaketak, lanbidea gauzatzeko antolamendu xedapenak eta ordainsari profesionalei buruzko arauak ez dira indarrean sartuko horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman artean.

X. KAPITULUA
ELKARGOA BERRITZEA
ETA DESEGITEA

***50. artikulua.***– Estatutuak berritzea.

Estatutu hauek 18/1997 Legearen 33.3.j) artikuluak aurreikusitakoaren arabera berritu ahal izango dira, estatutuak berritzeko eskaria egiteko eskumena duten elkargokideen gutxieneko quorum batek hala eskatuta (quoruma ez da izango elkargokideen ehuneko 25etik gorakoa).

***51. artikulua.***– Desegitea.

Euskadiko Logopeden Elkargo Ofiziala honako arrazoi hauengatik desegin ahal izango da: elkargoaren xedeak bertan behera uztea, iraungitzea edo elkartzea. Elkargoa desegiteko, ordea, Batzar Orokorrak berariazko bilera egin beharko du; bilera horretan erregimenari buruzko auziak erabakiko dira, ondoren azaltzen denaren kalterik gabe.

Elkargoa deseginez gero, Gobernu Batzordea arituko da batzorde kitatzaile modura. Ordaintzeke dauden obligazioak ordaindu ondoren, soberako ondasunak zera erabili erabakitzeko proposamenak egingo dizkio Batzar Orokorrari; logopediarekin, osasunarekin eta gizarte interesarekin loturiko funtzioak betetzen dituen irabazi asmorik gabeko edozein erakunderi eman ahal izango zaizkio soberako ondasun horiek. Nolanahi ere, 18/1997 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa.***– Euskadiko Logopeden Elkargo Ofizialaren sorrerari dagokion 4/2006 Legearen 4. xedapen iragankorrari jarraituz (2006ko abenduaren 20ko EHAAn zuzendu zen xedapen hori), honako hauek sartu ahal izango dira elkargoan, estatutu hauek indarrean sartu eta hurrengo bi urteetan hala eskatuz gero: entzumen, fonazio eta hizkuntza nahasmenduen arloan gutxienez hiru urteko esperientzia duten profesionalek edo logopediaren edo entzumen, fonazio eta hizkuntza nahasmenduen arloan unibertsitate hedaduran, masterretan edo espezializazioan gutxienez 500 orduko for-

b) Las modificaciones y alteraciones de los Estatutos Colegiales y de la denominación del Colegio.

c) Los reglamentos de régimen interior.

d) Los domicilios, sedes y delegaciones.

e) Las constituciones, fusiones, absorciones, segregaciones y disoluciones que experimente el Colegio.

***Artículo 49.***– Publicación.

Los Estatutos y sus modificaciones, disposiciones de ordenación del ejercicio de la profesión y normas profesionales del Colegio no adquirirán vigencia hasta su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

CAPÍTULO X
PROCEDIMIENTO DE REFORMA
Y DISOLUCIÓN DEL COLEGIO

***Artículo 50.***– Reforma de los estatutos.

Los presentes estatutos colegiales podrán ser reformados de acuerdo con lo previsto en el artículo 33.3.j) de la Ley 18/1997, con un quórum mínimo de colegiados con capacidad para instar la reforma que no podrá superar el veinticinco por ciento del total de colegiados.

***Artículo 51.***– Disolución.

La disolución del Colegio Oficial de Logopedas de Euskadi podrá efectuarse por cesación de sus fines, por extinción o agrupación, previo acuerdo de la Junta General que deberá ser convocada a tales exclusivos fines, en la que se decidirán las cuestiones relativas al régimen, sin perjuicio de lo expuesto a continuación.

En caso de disolución, la Junta de Gobierno actuará como comisión liquidadora, sometiendo a la Junta General propuestas de destino de los bienes existentes, una vez liquidadas las obligaciones pendientes, adjudicándolas a cualquier entidad no lucrativa que cumpla funciones relacionadas con la logopedia, la salud y de interés social. En todo caso según lo prevenido en el artículo 31 de la Ley 18/1997.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.***– En aplicación de la disposición transitoria 4.ª de la Ley 4/2006, de Creación del Colegio de Logopedas del País Vasco, corregida en el BOPV de 20 de diciembre de 2006, podrán integrarse en el Colegio de Logopedas si así lo solicitan durante los dos siguientes años a la entrada en vigor de los presentes Estatutos, los profesionales que cuenten con un mínimo de tres años de experiencia profesional en el ámbito de los trastornos de la audición la fonación y el lenguaje o cuenten con una formación de al menos 500 horas en cursos de extensión universitaria, másteres o especialización en el

mazioa jaso dutenek; guztiek ere ezinbestekoa izango dute honako titulu hauetakoren bat edukitzea:

a) Hizkuntza eta entzumen nahasmenduetan espezializatutako irakasle titulua, hezkuntza gaietan eskumena duen ministerioak emana.

b) Hizkuntza eta entzumen nahasmenduen espezializazioko diploma, hezkuntza gaietan eskumena duen ministerioak homologatua.

c) Osasun edo hezkuntza zientzietako unibertsitate titulua, lizentzia edo diploma.

Hiru urteko esperientzia profesional hori honela egiaztatu beharko da:

– Besteren kontura lan egiten duten profesionalek, Gizarte Segurantzak emandako Lan Bizitzaren egiaztagiriaren bidez.

– Norberaren kontura lan egiten duten profesionalek, autonomoetan alta emanda daudela egiaztatzen duen agiriaren bidez.

***Bigarrena.***– Salbuespen modura, Euskadiko Logopeden Elkargo Ofiziala sortzean Kudeaketa Batzordeak hautatutako karguen iraupena hemezortzi hilabetekoa izango da, hautaketatik aurrera zenbatzen hasita. Elkargoaren sorrera aldia eta profesionalek elkargoan izena emateko garaia amaitutakoan elkargoaren funtzionamendua helburua estatutu hauetan xedatutakoari egokitzeko denbora izan dezaten da neurri horren arrazoia.

***Hirugarrena.***– Indarrean sartzea.

Estatutu hauek argitara ematen diren egunaren biharamunean sartuko dira indarrean.

ámbito de la logopedia, o trastornos en la audición, la fonación y el lenguaje, y en ambos supuestos estén en posesión de algunas de las siguientes titulaciones:

a) Título de profesor especializado en perturbaciones del lenguaje y de la audición expedido por el Ministerio competente en materia de Educación.

b) Diploma de la especialidad de perturbaciones del lenguaje y de la audición homologado por el Ministerio competente en materia de Educación.

c) Título universitario, licenciatura o diplomatura en ciencias de la salud o de la educación.

La acreditación de los tres años de experiencia profesional deberá realizarse:

– En el caso de profesionales por cuenta ajena, mediante certificado de Vida Laboral emitido por la seguridad social.

– En el caso de profesionales por cuenta propia mediante el alta de autónomos.

***Segunda.***– Excepcionalmente los cargos elegidos por la Comisión Gestora a la creación del Colegio de Logopedas del País Vasco / Euskadiko Logopedeen Elkargo, tendrán una duración de dieciocho meses a partir de su elección, con el objeto de, una vez concluido el periodo de formación del Colegio y colegiación de profesionales, adaptar el funcionamiento del mismo a lo dispuesto en los presentes Estatutos.

***Tercera.***– Entrada en vigor.

Los presentes Estatutos entrarán en vigor al día siguiente de su publicación.